

VWko enplegu-akordioari buruzko iritzia

LAB-CGT-ELA

VW Navarrako LAB, CGT eta ELAren Sail Sindikalek prentsaurreko honetan beren iritzia jakinarazi nahi dute duela gutxi Volkswagen Navarrako zuzendaritzak UGT, CCOO eta CGCKo Sail Sindikalekin sinatu duen akordioari buruz.

Enplegu-akordioaren oinarria da lantegian egiten diren kontratazioak arautu beharra; kontratu GUZTIAK, ez soilik une jakinetakoak, non eskulan gehiago beharrezko den. Hau, ordea, ezin da lotu inolako akordio, hitzarmen, eredu edo ustezko plantilla gaztetzerekin.

Zertaz ari gara? Erabakitzeaz zergatik eta nola kontratatzen den pertsona bat lanaldi partzialeko enplegu baterako eta ez lanaldi osorako; zergatik egiten duten finko pertsona jakin bat, lantegian antzintasun handiagoa duen beste baten kaltetan, inolako azalpenik gabe.

Beraz, kontua da Volkswagen Navarran egiten diren kontratazioetan amaitu egin behar dela aspaldidanik dagoen oskurantismoa, salerosketa, eta ustelkeria; dauden sarrera-kupoak desagerrarazi behar dira, eta enplegu bat lortzeko aukera nafar jendarte guztiari eman. Arrazoi ideologiko edo sindikalek baldintzatutako galba herik gabe, eta egun dagoen genero-diskriminazio jasangaitza alde batera utzita. Enpleguak ez du zerikusirik langilearen sexuarekin; funtsezkoa ergonomia eta produkzio-erritmoak dira, besterik ez.

Sinatu den akordioak ez ditu inola ere gabezia horiek konpontzen, eta gure Sail Sindikalek sina dezaten beharrezko liratekeen gutxieneko puntuak ez ditu urrundik ere betetzen. Akordioarekin lehenagotik datorren diskriminazioa zuzitzen da eta etorkizunean diskriminatzen jarraitu nahi dute; VWn kontratazioa kontrolatzen dutenen amarru bat da, ezer ukitu gabe aldaketa egin dela itxura eman nahi izatea, sistemaren bizkarroi direnek ezarritako ustelkeriak jarraipena izan dezan.

Akordioak zortzi oinarriok izan beharko lituzke:

1. Volkswagen Navarran lanpostua lortu nahi duten pertsona guztiak Nafarroako Enplegu Zerbitzuan izena emanda egon beharko lirateke, enplegu edo hobekuntza eskatzaile moduan.
2. Gardentasuna: CVakitsuak izan beharko lirateke, datu pertsonalik gabe. Langile guztiek ezagutu beharko lituzkete enplegua lortzeko eskakizunak, egin beharreko frogak eta hautapeneko irizpideak; hauek argiak, objektiboak izan behar dira, izendapen neutroekin, Europako herrialderik aurreratuenetan egiten den bezala eta Osasun, Gizarte-Zerbitzu eta Berdintasun ministerioak enplegurako sarbidearen inguruan emandako gomendioen arabera.
3. Diskriminazio eza: Akordioak derrigor bete beharreko Europar Arautegi guztiak aintzat hartu beharko lituzke honako gaiei dagokienez: Enpleguko berdintasuna, Gizon eta Emakumeen arteko Berdintasuna eta Arraza edo Etniari buruzko berdintasuna. Halaber, Nafarroako Parlamentuak 2016ko uztailearen 1ean erabaki zuen ebazpena bere egin beharko luke; ebazpenak Nafarroako Gobernuari galdegiten dio enplegu eta okupaziorako sarbidean tratua aukera-berdintasuna susta dezala, eta desagerraraz dezala diskriminazioa, arraza, kolore, sexu, erlijio, iritzi politiko, jatorri nazional zein sozialak eragindakoa dela ere, Nafarroan kokatutako enpresa guztietan.
4. Enpresa-batzordeak gainbegiratuak: Batzordeak frogan garapena behatzeko aukera izan beharko luke, haiek modu objektiboan eta diskriminaziorik gabe egin daitezkeen, baita emaitzak zuzenak direla egiaztatzeko; gainera, hark kexuak bideratzeko ahalmena ere izan beharko luke.
5. Publikoa: Fabrikako langileek eta frogak egin dituzten guztiek aukera izan beharko lukete enplegu-burtsaren ordena eta bilakaera ikusi eta kontrolatzeko; horrela ustelkeria desagertu egingo litzateke, eta ez legoke esperantza faltsurik lanpostu batera iritsiz gero.

6. Trebakuntza bat ere behar ez den postuetan, hots, abilezia eskarmentuak ematen duten postuetan, egiaztatzeko moduko irizpide bakarra dago: antzinasuna. Beraz, kontratazioa egiterakoan lehenetsi egin beharko lirateke lantegian antzinasunetik handiena duten langileak.
7. Enpresak ordezkariak sozial guztiari informazioa emango dio VW Navarraren plantilla eta produktio bosturteko planetan, plantilla beharizanak benetan zeintzu diren jakiteko. Halaber, aldi baterako langileak betetzen duten lanpostu errealeko kopuruaren berri emango du.
8. Enpresak egungo burtsa, langile kopuru, antzinasun eta bakoitzak egindako kontratuei buruzko informazioa emango du. Ez da aintzat hartzen inolako irizpide edo portzentajerik produktio-kateetan errepikapena beste trebeziarik eskatzen duten postuetan jarduteko.

Akordioa sinatu duten sindikatuek ez dute bete 2016ko irailaren 29an enpresa-batzordean aho batez hartutako erabakia. Orduan hitzartu zen enplegu-akordioa izango zela publikoa, egiaztagarria, gardena, plantillak ezagutua, Europar Zuzendarauen nahiz Lan-arautegi eta -legeen arabera, eta prozesu guztia Enpresa-batzordeak gainbegiratu eta kontrolatuko zuela.

Erabat bestelako akordio batekin egin dugu topo, ordea:

- Ez da beharrezkoa Nafarroako Enplegu Zerbitzuan izena emanda egotea; horrela gutxietsi eta diskriminatu egiten dira benetan lanpostu bat behar dutenak.
- Iluna: Ez dago argi aurre-hautaketa egiteko zeintzu eskakizun izango den, eta hautatuek zein froga gainditu beharko duten; garrantzitsuena elkarrizketa pertsonala izango da, hots, frogarik subjektiboena. Enplegu-burtsan sartzeko hautatutako inork ezin izango du jakin zein postutan kokatuta dagoen. Inork ez du jakiterik izango zeintzu izango diren behin betiko kontratazioak erabakitzeak arrazoiak.
- Diskriminatzailea: Volkswagen Navarrako Berdintasun Plana aipatzen du, zeina 2011tik hona indarrean dagoen; haatik, enpresak mespretxuz eta gutxiespenez hartu du ordutik, ez baitu inoiz aplikatu. Emakumeek enpresa honetan ia leku testimonialetan hartzen dute, akordioa sinatu aurretik eta ondoren; ez da aldaketarik gertatu. Akordioa hutsala da, beraz.
- Enpresa-batzordeak ez du inolako kontrol ahalmenik. Zuzendaritzak hautaketa prozesua hasi dela jakinaraziko dio horretarako eratuko den enplegu-batzordeari; nahi balu, bestalde, frogan edukiaren berri emango dio, baina erabakitzeak edo gainbegiratzeko inolako ahalmenik eman gabe.
- Ustela: Prozesu anonimoa ez denez, iluna, diskriminatzailea, inolako kontrolik gabea, hasieratik bertatik biziak, orain arteko moduan jarraitzea litzateke normalena. Izan ere, horretarako egin da. Prozesua nahierara egiten da; enpresak eta bertan dagoen ustelkeriaren onuradunek apetaz jokatuko dute, orain arte bezalaxe.

Akordioa historikoa izan zitekeen, baina VW Navarran hedatuta dagoen ustelkeria mozorrotzeko saio bat besterik ez da, bere aktoreen lotsariak estaltzeko; sinatzaileek antzinatik datorren diskriminazioa eta ustelkeria zuri eta ontzat eman nahi dute horrela. Dena aldatzen ari dela sinestarazi, ezer alda ez dadin.

Iruñea, 2017ko maiatzaren 15a